

# Aretxagazeta



**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

**SAN PEDROAK 03**



## **HIRUATX: EKUADORREKO PROIEKTUAREN BERRIAK**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 21**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 22**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarteak .....	934 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Saretxo .....	943 71 26 56
Taxi geltokia .....	943 79 22 33
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**

Arrasate .....

**LARRIALDIAK**

SOS Delak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdiak .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domekan 12:30ean.

**MENDIOLA**  
Domekan 11:30ean.

**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Hilabete honetan ez dago mezarik.

**OHARRAK**

**ERRETIRATUEK BIDAIA**

Basotxo erretiratuen elkarteak bidaia antolatu du uztailearen 9rako. Hendaia, Hondarribia, Oiartzun eta Donostia bisitatuko dituzte. Interesatuak astelehenetik aurrera Basotxotik pasa daitezke txartelak hartzera, 10:00etatik 12:30era bitartean. Prezioa, 16 euro.

**ON BITORIANORI OMENALDIA AUZOTARREK**

Auzotarrek omenaldia egingo diote Bitoriano Aranburu abadeari uztailearen 6an. Aozaratzan izango dute meza, eta gero bazkaria Matikua jatetxean. Izena uztailearen 4a baino lehen eman behar zaio auzoko parrokiako arduradunari.

**UDALEKU IREKIAK**

Martitzenean, uztailearen 1ean, hasiko dira herriko umeak udaleku irekietan. Ordutegia: 10:00etatik 12:30era eta 15:30etik 17:00etara.

**LIBURUTEGIAN UDAKO ORDUTEGIA**

Uztailearen 1etik aurrera udako ordutegia izango du liburutegiak. Astelehenetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute eta gainerako egunetan goizez bakarrik. Uztailearen 31tik abuztuaren 24ra bitartean, bestalde, itxita egongo da.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**DEBAGUNE EGUNA**

Debagune eguna ospatuko dute euskara elkarteek uztailearen 12an Oñatin. Egun horretarako koadriren arteko lehiaketa antolatu dute. Sei-zortzi lagunek osatutako taldeek hartuko dute parte, eta herri kirolak egin eta euskara probak gainditu beharko dituzte. Saria Eako landa turismo baten asteburua pasatzea izango da. Izena emateko Loramendira deitu.

**ORAINDELA 9 URTE ARETXABALETAN**

**K-2 gailurrera heldu ziren Iñurrategi anaiak**

Felix eta Alberto Iñurrategi, Juanito Oiartzabal, Juan Tomas Gutiérrez eta Kike de Pablo mendizaleak 1994ko ekainean heldu ziren K-2 mendiaren gailurrera (8.611 m). Munduko gailur gaitzenetakoa da. Uztailearen 9an itzuli ziren herrira, eta merezi-tako omenaldia egin zieten.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Katamixarra”*

Urtxintxa,  
kolore nabarrekoea bereziki.  
—Bat nabarraua dok, da beste bat gorrixaua; oni katagorrixa, da nabarrai katamixarra.




**ZORIONAGURRAK**




ESKORIATZA  
**Leixuri Herruzo**  
20an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Pilar Zulaika**  
27an. Zorionak eta muxu handi bat, Garaziren partetik.



ARETXABALETA  
**Jon Kepa Zubillaga**  
28an. Zorionak eta muxu handi bat, Gureako lankide guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Aritz Zubia**  
30ean, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Asier Mtz. de Agirre**  
1ean, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Alberto Zubillaga**  
2an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

**Ondo ibili San Pedrotan!**




Sukaldeko Bateriak • Lapiko Lasterrak • Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540

## ATREBENTZIAEZPADA/ Ondo pentsetan jatzu udaletxien eta bankuetan udako ordutegixe eukittie?




**MIRARI ANTOÑANA**  
Langillie




**IBAI ZANGITU**  
Ikaslie



**ISABEL HINDA**  
Langillie



**JUAN IRUZUBIETA**  
Langillie



**PEDRO MARI ZUBIZARRETA**  
Langillie



**AMAIA LAZKANO**  
Langillie

Ba, egixe esan guztiz ondo ez jat pentsetan. Azkenien, goixez bakarrik lan egitten dauen jente asko dau, eta horreindako ez da egokixe bankuetako eta udaletxeko ordutegi barrixe.

Ez dakit. Ni ikaslie naz eta udako ordutegi horrek ez dust kalte haundirik egitten. Hala be, horko langilliendako pribilejiue dala uste dot. Danok hartuko leukie ordutegi hori.

Ordutegi hori daukien dako oso ondo dau. Gaiñerakuondako, barriz, orokorrien kalte egitten duskula uste dot. Danok hartuko geuke udako ordutegi pribilejiu hori!

Ordutegi hori daukien danendako ondo dau, baiñe uste dot bezeruendako kaltegarrixe dala. Gaiñerakuon ordutegixe ez da eta udako ordutegi horrekin bateragarrixe.

Ez dakit. Uste dot ohitura kontuek diela horreik, eta denporiaz aldaketan fango diela. Udako ordutegixe daukienek, gure ez arren, gaiñerako lanen ordutegira bardiindduko diela uste dot.

Zuzena dala pentsetan jat. Uste dot danok euki biherreko ordutegixe dala. Egixe da udaletxien zerbait egittie gure dauenandako ordutegi txarra dala, baiñe ondo daule pentsetan jat.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK AMUARRAINAK HILDA URKULUN** Oraindik ez daki gu benetan zer gertatu zitzaian amuarrain gaixoei, baina hortxe daude Urkuluko urtegian hil ziren guztiak. Birpopulaketa kontuak aipatu zituen Ur Partzuergoak. Badakigu Urkulun ez direla amuarrain ugari bizi; hala ere, horrela birpopulatzeko asmoa badute, aurrerantzean ere ez da askorik egongo. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Udaleku Irekiak

Martitzenetik aurrera 186 ume eta gaztetxo eta 30 begirale ibiliko dira Udaleku Irekietan.

ASTEAN BEHIN /05

#### Rukullakta proiektua

Ibon Antero Hiruatxeko kideak Ekuadorreko proiektuaren berri eman du.

KIROLAK /06

#### Nagore Uriarte trialsinean

Nagore Uriarte 10 urteko trialsin lasterkariak domekan amaituko du Open Norte Txapelketa.

### ASTEKODATUA

# 6

#### KARTEL AURKEZTU DITUZTE ANDRAMAIXAK IRAGARTZEKO

Andramaixak iragartzeko Kartel Lehiaketan sei kartel aurkeztu dituzte. Horietatik onenak uztailaren 11n jasoko du saria. Epaimahaia Jai batzordeko kideek osatuko dute.

### BESTE EKESANA

**“Gure ilusioa ile apaindegi bat zabaltzea zen. Orain 25 urte sortu zen Basotxo elkarte, eta**


**ordutik, Zuzendaritza batzordean egon direnek eskaera bera egin dute. Eta orain, azkenean ere, lortu dugu ile apaindegia jartzea.**

**Uste dut Aretxabaletako erretiratuendako zerbitzu garrantzitsua izango dela. Batez ere, Basotxoko bazkideei eskainitako zerbitzua izango da.**

**Aurreko legealdiko alkate jaunak, Anjel Bergaretxek, Basotxok ile apaindegia izateko zuen beharra ikusi zuen. Etxe honetako arazoekiko sentsibilitate berezia erakutsi zuen eta uste dut horregatik lortu dugula ile apaindegia jartzea. Eskerrak eman gura dizkiogu bere laguntza-rengatik.**

**ANTONIO DíEZ**  
GOITB/03-06-24

### HERRITARREN BERBAK/ Edorta Mendieta



*Putxerito lere!*

**H**auteskunde ostean gelditu zaigun panorama ez da inorentzat atsegina, inolaz ere. Herriaren parte bati ahotsa ukatu zaio eta hortik aterako diren ondorioak ezin daitezke onak izan, ez herrigintzarako, ez eta Euskal Herriaren normalkuntzarako.

Baina, noski, honetan ere errua norbait leporatu behar eta herri plataformek, ustez ezkertiar eta abertzaleak, garbi dute nori. Maiatzaren 26tik aurrera honen inguruan idatziak, pintadak eta deklarazioak oparoak izan dira, eta aurrerantzean izango dugun “giroaren” lehenengo adibidea alkatea izendatzeko bilkuran bizi izan genuen.

Dena dela, herri plataformen posturak irribarrea sortarazten dio ikusmira kritikoa duen edonori. Irribarrea diot, errealitatea hankaz gora jartzeko duten abileziagatik, eta behin eta berriz, azaltzen dituzten kontradikzio etiko eta politikoengatik.

Erraza da oso, herriaren hitza eta herriaren nahia aipa-

ztea. Baina nola aipa dezake halakorik herriak hamaika aldiz, bai kalean, bai hauteskunderetan, esandakoari jaramonik egin ez dionak; ETaren morrontzapean hezi eta bizi denak. Norberak bere erabaki, ekintza, estrategia eta erruen ondorioak onartu behar ditu. Eta “ezker abertzalearen” aspaldiko erabakia izan zen tentsioa areagotu eta joko demokratikotik kanpo gelditzea. Politikan norberak aukatzen ditu jokatzeko dituen kartak eta “ezker abertzaleak” kanpoan gelditzea erabaki zuen. Bere kartarik onena izan

da soka mutur batetik heldu eta Aralarrek aipatzen zuen korapiloa estutzea. Eta horren ondorioak dira gaur sufritzen ditugunak. Puntu. Horrek ez du ekarri behar, ordea, ahotsik gabeko herritarrik izatea. Udalaren eguneroko jardunean badago instrumenturik edonoren ahotsa aditzera emateko, baita Aretxarena eta berau bultzatu duen edonorena. Nik ere ez dut nahi bigarren mailako herritarrik... sokaren inongo muturrean.

**“Dena dela, herri plataformen posturak irribarrea sortarazten dio ikusmira kritikoa duen edonori”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

## Aillegau jaku 300.a

Holaxe da bai, 300. alie aillegau jaku. Konturetu be egin barik esango nauke, baiñe, dagoeneko, 300 ARETXAGAZETA kaleratu dittuzte. Neuk be ez dakit leleno alie noix kaleratu euien, 90ien akaso. Hiruhillebetien behin urtetan euen harek, nehikue ordu sartute urten be! Geldi aldi baten ostien, 1992xen, hamabostero hasi zien kaleraketan, eta ordutik ez da sekule urten barik geratu. Lelengo errebista txikixe izen zan, gero haundi egin euien, orrixek gehitu eta kolorie sartu eutzien. Kanbixu haundixena, ostera, 2001eko urrixan etorri zan; periodiko itxurie emun eutzien eta astero kalera ketan hasi zien. Baten batzuk protestau geuen orduen, baiñe barrire be egin gara, eta nik behintzet pozik leiduten dot etxera aillegetan jatenien. Langille asko pasau die gure errebistie egitten dan lekutik, baiñe danek eutsi dotzie ARETXAGAZETAren izpirituei, eta horrek be poza emuten dust.

Seguru nau danon gustoko aldizkarixe ez dala izengo, ezinezkue da hori, baina askona bai; hortaz, holaxe jarraitu, euskeriarendako, herri xarendako eta herritarrrendako lanien eta herritarrok egubakoitze tan pozik hartuko dogu etxien.

**OPORRAK/** 186 ume eta gaztetxo ibiliko dira Udaleku Irekietan martitzenetik aurrera

# Herritik irten barik ondo pasatzeko aukera paregabea Udaleku Irekietan

MIRARI ALTUBE

Uztaila gainean daukagu, eta dagoeneko oporretan daude herriko ume eta gaztetxoak. Oporretan, ostera, zer egin ez aspertzeko? Esaterako, Udaleku Irekietan parte hartu. Ez da gero, ez, aukera txarra, eta horixe pentsatu dute herriko 186 ume eta gaztetxok.

Martitzenetik aurrera herriko kale bazterrak umez beteko zaizkigu. Udaleku Irekietako ume eta gaztetxoak dira, guztiak ere gertu oporretan ondo pasatzeko.

### 186 UME ETA 30 BEGIRALE

Uztailaren leian hasi eta 22ra bitartean gure herriko umeak ez dira aspertuko, ez horixe! 4 eta 12 urte arteko 186 ume eta gaztetxo batuko dira Udaleku Irekietan, 30en bat begiralerekin. Horretarako adin bakoitzera egokitutako egutegia gertatu die Kultura Sailak. Txikienak, hau da, 1999an jaiotakoak, goizez bakarrik ibiliko dira. Hala ere, egun berezietan arratsaldez ibiltzeko aukera ere izango dute. Jolasak, eskulak eta txangoak izango dira ohi-koenak, baina badaude talde guztiek batera ospatuko dituzten egunak: San Fermin eguna,



Umez beteko zaizkigu herriko kale bazterrak datorren martitzenetik aurrera.

Euskararen eguna eta azken eguneko festa, hilaren 18an. Horiez gainera, nagusienek txango bi

egingo dituzte: bata, Galartzara gaua pasatzera; eta bestea oraindik erabaki barik dute.



## Sua eta tantaia protagonista San Juan bezperan

Herritar ugari hurreratu ziren plazara urteko gau motzanean, eta plaza txiki geratu zitzaigun. San Juan kantua abesten zebiltzan bitartean sorginik eta lapurrik ez, baizik eta eskolako paperak erre zituzten mutikoen. Gauerdian Santa Ageda mutilek hartu zuten txanda. Tantai polita jaso zuten, berehala jaso ere; 00:20rako zuzen zegoen plaza erdian. Tantai puntan *Egunkaria* eta *Reala* izan zituzten gogoan. /M.A.

# Zubia

oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

# Jou Díaz

# Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

# Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

PIENSO  
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**HIRUGARREN MUNDUA** / Pentsua egiteko lantegia jarri dute abian Rukullaktan

# Ibon Antero Ekuadorko kitxuei lagundu guran dabil

MIRARI ALTUBE

Lau hilabete pasatu dira Hiruatx elkarteko kide Ibon Antero Ekuadorko Amazoniara joan zela. Rukullakta herriko kitxuei laguntzera joan zen, pentsu lantegi bat abian jarri eta zelan lan egin erakustera, hain zuzen. Bada, hango berriak jaso ditugu orain.

Ibon Antero orain dela lau hilabete joan zen Ekuadorko Rukullakta herrira. Orain, haren berriak jaso ditu Hiruatx-ek.

## PENTSUA EGITEKO LANTEGIA

Hiruatx-ek, hirugarren munduko herriei laguntzen dien Aretxabaletako elkarteak, 2001eko irailean hasi zuen Ekuadorko Rukullakta herrian duen proiektua. Hegaztiendako eta txerriendako pentsu osatua egiteko lantegi bat abian jartzea zuen helburu. Horretarako 84 mila euro batu gura zituzten aretxabaletarren artean -baita batu ere-, eta Markinako Munduzabal GKEk beste 42 mila euro jarri zituen. Mundukide Fundazioak, berriz, laguntza teknikoa eman zien.

Orain dela lau hilabetetik Ibon Antero Hiruatx-eko kidearen laguntza dute, gainera, Amazoniako kitxuek. Ibon ingeniaria da, eta pentsu lantegia zelan kudeatu erakustera joan da.

## OILASKOAK SALTZEN

Pentsu osatua egiten duten lantegia jarri dute abian Rukullaktan. Pentsua egiteko artoa eta txonta izeneko fruitua erabiltzen dituzte, eta biak bertako familiei erosten dizkiete. Hilabeteen hamar mila kilo pentsu ekoizten dituzte, eta pentsu hori oilaskoak hazteko izaten da. Gero, oilaskoak inguruko herrietan saltzen dituzte, astero 500etik gora. Oilasko horiek guztiak Rukullaktako familiek hazten dituzte, baita hil eta saltzeko gertatu ere.

Eta izan duten arrakasta ikusita, oilaskoak prozesatzeko beste lantegi txiki bat eraiki gura dute. Ibonen esanetan, horrela oilaskoen kalitatea hobetu egingo litzateke, zerbitzu hobea eskai-



Txonta izeneko fruitua eta artoa erabiltzen dituzte pentsua egiteko.

ARTXIBDA

*Orain dela lau hilabetetik Ibon Antero Hiruatx-eko kidearen laguntza dute kitxuek*

niko lukete eta salmentak handitu egingo lituzkete. Izan ere, jende askok, batez ere emakumeek, diru sarrerak dituzte orain oilaskoak salduta.

## LAN GARRANTZITSUA

Lantegi biokin, pentsuarena eta oilaskoena, kooperatiba osatu dute. CAIA izena jarri diote, Amazoniako Kooperatiba Nekazari Industrialia, eta *bihar* esan gura

*Oilaskoak prozesatzeko beste lantegi txiki bat eraiki gura dute Rukullaktan*

du kitxuen hizkuntzan. Lan garrantzitsua egiten dabil Ibon; izan ere, kitxuei zelan lan egin erakusteaz gainera, ardurak hartzen eta inizatiba izaten erakusten dabil. Herri batek aurrera egin dezan, herritarrek eurek izan behar dute gauza antolatzeko, irabaziak gestionatzeko, arazoei irtenbidea bilatzeko eta euren izaerari eusteko. Hori guztia erakusten dabil Ibon Antero.

## LABUR

### Dagoeneko udako ordutegia du udaletxeak, eta liburutegiak uztailetik aurrera izango du

Udan sartu gara eta dagoeneko udako ordutegia du udaletxeak. Hemendik eta irailaren 15a bitartean goizez bakarrik egongo da zabalik.

Udal Liburutegiak, berriz, uztailetik aurrera izango du udako ordutegia. Uztailean, abuztuko azken astean eta iraileko lehenengo astean astelehenetan goiz eta arratsalde zabalduko dute, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; gainerako egunetan, ostera, goizez bakarrik. Uztailearen 31tik abuztuaren 24ra bitartean, bestalde, itxita egongo da. Hori dela eta, uztailearen 14tik aurrera oporretarako liburuak hartzeko aukera izango dute irakurleek, eta bi hartu beharrean lau hartu ahal izango dituzte.

### Abade aldaketak izango dira aurten ere, eta parroko berria izango dugu uda ostean

Iazko irailean parrokoa aldatu ziguten, eta aurten ere halaxe gertatuko da. Orain arte Xabier Gómezek bete ditu Aretxabaletako eta Eskoriatzako parroko lanak, baina beste asmo batzuk ditu buruan, eta uda ostean utzi egingo du kargua. Auazoetan mezak esaten dituen Jose Angel Agirre, aurreko astean esandako moduan, Donostiara joango da; Anjel Ipiñak oraingo ez dakigu zer egingo duen. Alde egingo dutenen ardurak beste abade batzuek hartu behar dituzte, eta dagoeneko badakigu zeintzuk izango diren: Pablo Letona, Ziorlako eta Bedoñako abadea, eta Jesus Ortiz de Urbina Zumarragako parrokiako abade laguntzailea.

## TXUTXUMUTXUA



### Basotxoko ile apaindegia, laster zabalik

Martitzenean, uztailearen 1ean, zabalduko du Basotxo erretiratuaren elkarteak ile apaindegia. Asteon egin dituzte azken txukunketa lanak, martitzenean dena gertu izateko. Eva Valor eskoriatzarra izango da ile apaintzailea, eta txanda hartzeko hari deitu beharko zaio, 645 70 63 76 telefono zenbakira. Gizonendako astelehenetan eta martitzenetan zabalduko du eta emakumeendako, berriz, eguaztenetan, egunetan eta egubakoitzetan, 16:00etan. Zerbitzua Basotxoko bazkideendako da. /M.A.

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel Arquero

Dekorazioa:  
Soraya Arquero



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76



**Mobiliario**  
**ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

NAGORE URIARTE/TRIALSIN LASTERKARIA

## "Begiratzeaz bakarrik aspertu eta gero hasi nintzen trialsina egiten"

AMAGOIA LASAGABASTER

Nagore Uriartek 10 urte besterik ez du. Hala ere, aurten trialsin txapelketa bi jokatu ditu, Gipuzkoakoa eta Open Norte, hain zuzen ere. Horietan ez du emakume askorik parte hartzen; edozelan ere, Nagore gustura dabil, eta aurrerantzean hortxe segituko duela esan digu.

Zelan hasi ziren trialsina egiten?

Anaia -Markel Uriarte- orain dela urte batzuk hasi zen trialsina egiten, eta ordutik hona hainbat probatan hartu du parte. Nik txapelketa horietara guztietara laguntzen nion, baina begiratze hutsaz aspertu egin nintzen. Orduan erabaki nuen nik ere trialsina egitea. Orain dela urtebete inguru hasi nintzen.

Etxekoek zer esan dizute?

Pozik daude. Amak, batez ere, laguntza handia ematen dit. Aita anaiaren *motxilaria* edo laguntzailea da eta ama nirea. Hala, lau-erok joaten gara txapelketa guztietara.

Zenbat txapelketatan hartu duzu parte?

Gipuzkoako Txapelketan eta Open Norte Txapelketan. Azken hori oraingo domekan amaituko dut, Gasteizen. Horien aurretik beste proba batzuk ere egin ditut, baina sailkapenerako punturik atera barik. Izan ere, txapelketa ofizialetan lehia ibiltzeko 10 urte izan behar dira gutxienez.



Baserrian egiten dituzte entrenamendu saioak Nagore eta Markel Uriartek.

Eta zer moduz moldatzen zara bizikleta gainean?

Gipuzkoako Txapelketan ondo ibili nintzen, eta bigarren amaitu nuen. Open Nortean, berriz, hirugarren gelditzea espero dut.

Emakumezko gutxi dabilza kirol horretan?

Bai, oso gutxi. Gipuzkoako Txapelketan zazpi neska inguru ibili ginen, eta ni nintzen gazteena. Gainerakoak 15 urtetik gorakoak ziren. Gainera, gizonezkoetan ez bezala, emakumezkoetan maila bakarra dago; hortaz, sailkapen bakarra osatzen dugu adin guztietako neskek.

Aretxabaletan egin zen proban herriko jende ugari har-

tu zuen parte; ez da hala?

Bai, orduan nire koadrilako neska batzuk ere animatu ziren trialsina egitera. Ea gehiagotan animatzen diren, jende gutxi gabiltza-eta!

Zer da kirol horretatik gehien gustatzen zaizuna?

Probak ondo egin eta podiumera igotzea.

Eta gutxien?

Bizikletatik erortzea.

Aurrerantzean segitu egingo duzu trialsina egiten?

Ez dakit. Trikitia jotzen eta dantza egiten ikasten nabil, eta horiek ere gustuko ditut; hortaz, ez ditut bazterrean utziko. Hala ere, orain bizikleta erosi didate, eta pozik nabil trialsina egiten.

TXIRRINDULARITZA

## Quebrantahuesos proban gogor ibili ziren Aretxabaletatik joandako txirrindulariak


Zapatuan, hilaren 21ean, jokatu zuten Sabiñanigon (Huesca) txirrindulariendako Quebrantahuesos proba. Euskal Herritik eta Espainiako Estatutik joandako 4.516 kirolarik hartu zuten parte proban. Tartean, hona hemen Aretxabaletatik joandako batzuk: Luis Felix Unanue, Asier Elkorbarrutia, Josemi Elizburu, Jon Urkia, Gorka Etxabe, Jon Armentia, Jesus Mari Rosado, Isidro Garate, Candido Pérez eta Alfredo Irusta. Bero izugarria egin zuen arren, 205 kilometroko ibilbidea egin eta gero gehienak heldu ziren helmugara. Batez beste zortzi ordu baino gehiago behar izan zituzten Sabiñanigoko txirrindularitza proba bukatzeko.

FOTOKIROLA



## Zale ugari etxetik animatu zuten Realak

Denak ez ziren Anoetara joan, Realzale batzuk herrian gelditu ziren ligako azken partidua ikusteko. Ohi baino jende gutxiago elkartu zen tabernetan, baina horiek Anoetan egongo balira bezala animatu zituzten Realeko jokalaria. /A.L.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA


Aretxagazeta

Arotz lanetan behar duzun guztia



AZKARATE  
AROSZTEGIA


Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



LEIBAR


arrandegia



Mitarte Kalea 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

Maritxu  
drogeria  
mertzeria

Araba Ibilbidea 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA



URBALTZ  
TABERNA

Mitarte 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

# Lehenengo Udaleku Irekiak

**M**artitzenean hasiko dira herriko umeak Udaleku Irekietan. Dena dela, ez da garuko kontua. Orain dela 16 urte, 1987an, egin zituzten lehenengo Udaleku Irekiak, eta orduan 80 bat ume eta gaztetxo batu ziren. Herrian bertan jolas egiteaz gain Oriora egin zuten irteera, eta hiruzpalau egun pasatu zituzten Orioko aterpetxean. Ordukoa da erretratuak. Autobusak, gainera, herrian utzi zituen eta aterpetxeraino oinez joan behar izan zuten motxilak bizkarrean hartuta. Inma Miguel Udaleko kultura teknikariak antolatu zituen udalekuok, eta, haren esanetan, gaztetxo beste begirale joan ziren. Ederto pasatu zuten, gainera, eta ez zitzairen inolako ezustekorik gertatu.

Gora igota dauden mutikoak, ezkerretik hasita: Harkaitz Berasaluze, Aitor Etxezarreta, Andoni Pazos, Luis Benito, Luis Mari Fernández, Jabi Corres eta Iker Iglesias.

Behean, zutik: Iker Bengoa, Joana González, Arantxa Fernández, Fani



Izagirre eta Rafael Rodríguez. Behean, aurretik hasita: Marta Romero, Oscar Toledo, Andoni Miguel, Amaia Aizpuru atzean gordeta, Alex Gutierrez, Itxaso Ojeda, Izaskun Altube, Olatz Iglesias, Neida Gabilondo, Inma Miguel, Jaione Uribarren, Pili Fernández, Asier Antia, Mari Carmen Gana-

do, Jose Luis Borrego, Dabid Mateo eta Asier Cobos. Aurretik atzera, hurrengo ilara: Jokin Orueta, Iurgi López de Arkaute, xx, Mikel Errasti, Haizea Cobos, Aitziber Arrese, Agurtzane Inurrategi, Lorea Serrato, Yoli Borrego, Eli Abasolo eta Idurre Uribarren. Aurrean eserita daudenak: Monika

Etxeandia, Ainhoa Iturricastillo, Lourdes Alvarez, Nerea Urrutia, Aitziber Bolinaga, Nerea Etxandia, Amaia Gaztañaga, Itziar Arana, Sodupe eta Fran Miguel.

Argazkia: Udaleko Kultura Saila

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

## Ibarra futbol zelaia eta kirol etxea

**K**irol etxeak betiko lekuan segitzen du, baina Ibarra futbol zelai ingurua asko aldatu da azken urteotan. Kirol etxearen parean nagusiek jokatzeko zuten belarrezko futbol zelaia zegoen eta goraxerago, berriz, *anexo* deitzen zioten futbol zelai txikia. Entrenamenduetarako erabiltzen zuten azken hori. Ibarra futbol zelaiak harmailak eta guzti zituen.



**1980** Partiduetan futbolzalez beteta egoten ziren harmailak. Partidurik ez zegoenean, ostera, koadrilek egiten zituzten egonaldiak.



**2003** Futbol zelaiaren ordez berdegune handia dago kirol etxearen parean. Harmailak zeuden lekuan, bestalde, bidea dago, eta aurrerago etxeak.

**OPEL**

Sarritan ingurunera egokitu behar izaten duzu.  
Horregatik da hain atsegina ingurunea zuri egokitzea.

**OPEL MERIVA**

**GARAJE NORTE S.L.**

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20




朋友 自 有 不 手  
Euskara "txinoa" bada zuretzat ...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,  
txirrinduila, dulai...




UDAL  
EUSKALTEGIAK  
...

Ni txirrinduan  
nabil.



HABEren dirulaguntzaz

UDAL  
EUSKALTEGIAK



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA  
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta  
Intxaurtxueta 9 - 10, Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
Telefax-a : 943 79 92 62  
leintzeuskalteg@terra.es

• Euskalduntze eta  
alfabetatze maila  
guztiak eta EGA.

• Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00  
15:00 - 19:00  
• Bekatze sistemak eta diru laguntzak ditugu.  
GALDETU!

Ondo ibili San Pedrotan!

# Gora San Pedruek!



Jatetxea • 7 txabola guztiz prestatuta • Urte osoan zabalik

**GAZTAINUZKETA: NATURAREKIN BAT EGINIK**

Informazioa eta erreserbak: 943 58 50 58 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA



# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / 130. zenbakia



Hau berua,  
hau girua...  
jaixetan  
edo zertarako  
gogua

## SAN PEDROAK03

ANDER GILLENIA

### FOTOSINTESIS



argazki laritza

Kamerak  
Karnetetako argazkiak  
Ezkontzak  
Estudioko argazkiak

Errebelatu  
guztiak  
**24** ordutan

*Ondo ibili San Pedrotan!*

Herriko plaza 5 ARETXABALETA  
943 79 79 67

**ALKATEARENAGURRA/ Juan Karlos Bengoa**

**U**rtero legez, aurten ere ekainaren azkenengo egunak heltzeko zain egon gara eskoriatzarrok, gure San Pedro jaiak ospatzeko.



Egungo egoera politikoa ekaineko tenporak gelditu diren bezalakoa izan arren, hau da, nahasia eta ekaittua, alkate bezala luzatzen dizuedan lehenengo agur hau aprobetxatu nahi nuke gure lanaren ildo nagusia Eskoriatza izango dela esateko, eta, beraz, gure ekimena eskoriatzar guztion artean eta eskoriatzar guztiondako bultzatua egongo dela.

Egun hauetan ere derrigorrezkoa da, arrazoi desberdinengatik, gure herrian egon ezin diren eskoriatzarrekin oroitzea. Jai hauek, era berean, azkenengo urtean Eskoriatzara bizitzera etorri direnei harrera egiteko eta eurek herria hobeto ezagutzeko balio dezakete.

Bereziki Udal Kultura batzordeari, Jai batzordeari eta egitarau zabal hau antolatzen lan egin duten hainbat elkarte eta laguni eskerrik beroenak eman beharrean gaude, herriko jaiak, kostu ekonomikoaz gain, antolakuntzan urtez urte dabiltzan eskoriatzar askoren jardun izugarriaren emaitza direlako.

Bukatzeko, San Pedro jaietan aurreikusitako ekitaldi guztietan parte hartzera eta gozatzera animatu nahi zaituztegu.

**San Pedroetan dantzari Herriko Plazan**

**A**rgazkia 1972ko San Pedroetakoa da. Garai hartan Gorosarri dantza taldeko neska-mutilek ikuskizun polita eskaintzen zuten jaietan. Gorosarri dantza taldea, jendea falta zuela-eta, desagertu egin zen. 1993an herritar batzuek taldea berpiztu egin zuten, baina 98an berriro desagertu zen. Orain, berriz, Musika Eskolak bul-

tzatuta, irailean umeen dantza taldea abiarazi gura dute.

Ezkerretik hasita, Ana Jesus (Lapatzakoa), Karmele Iregi, Gurutze Orbegozo, Lourdes Agirregabiria, Edurne Barandiaran, Edurne Agirregabiria, Amaia Barandiaran, Maria Elena Barandiaran eta Begoña Ugalde. Irakaslea Mari Tere Sasian zen.

**Egubakoitza, 27**

**19.30** 'ESKORIATZAKO UDALETXEEN HISTORIA' liburuaren aurkezpena. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**22.30** ANTZERKIA Unibertsitatean. Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak 'ONDO ESAN BEHARKO' antzezlanaren aurkeztuko dute.

**Zapatua, 28**

**10:00** II. BASKET TXAPELKETA 3x3 (Lehen fasea).

**12:00** Jaiak hasteko TXUPINAZOA Herriko Plazan. Gero, buruhandiak txistulariekin, eta kalejira Trikitilari Eskolako ikasleekin.

**15:30** II. BASKET TXAPELKETA 3x3 (Bigarren fasea).

**18:30** Kontrol urruneko auto, helikoptero eta hegazkinen MAKETA ERAKUSKETA.

Unibertsitateko aparkalekuan.

**19:30** SALBEA San Pedro elizan.

**20:00** Musika Eskolako Bandaren kalejira.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.

**01:00** Zaragozana pirotekniaren SUZKO ERRUBERAK.

**01:20** Dantzaldia TRIKIZIO taldearekin Herriko Plazan.

**01:30** KONTZERTUAK txosnetan: KEN-7 eta EH SUKARRA.

# San Migel jatetxea

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu

**SAN PEDROTAN:**

- Goiz ireki eta goizeko ordu txikietan itxi
- Karta, plater konbinatuak eta ogitartekoak

Abuztuan EGUNERO irekita

Apotzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71

ELKARRIZKETA IMANOL ANDETXAGA JAI BATZORDEKO KIDEA

# “Munduko jai onenak dira San Pedroak; goiz eta gau aprobetxatu beharrekoak”

AMAGOIA LASAGABASTER

Ondo ezagutzen ditu Imanolek San Pedro jaiak. Betidanik izan ditu gustuko herriko jai nagusiak. Azken zortzi urteotan, gainera, antolatzaile lanetan ibili da.

**B**andan, Trikitixa Eskolan, parrokiako taldean, baita Jai batzordean ere. Noiz sartu zinen Jai batzordean eta nondik ateratzen duzu horretarako denbora?

Orain dela zortzi urte hasi ginen herriko hainbat taldetako ordezkariak elkartu eta herriko jaiak antolatzeko laguntza ematen. Hilean behin elkartzen gara. Hortaz, niretako ez da lan handia izaten.

Zelan sortzen zaizkizue herriko jaiak gertatzeko ideiak?

Beste herri batzuetako jaietatik hartzen ditugu, batez ere. Gainera, Jai batzordean adin guztietako jendea gabilta, eta nork



bere gustuko proposamenak egiten ditu. Hala, herritar guztiei zuzendutako festa antolatzen ditugulakoan nago.

Aurten indartsu datoz San Pedroak. Azpimarratzeko ekitaldiaren bat?

Egitaraua oso-osorik nabarmenduko nuke. Egun

“Batzordean adin guztietako herritarrak elkartzen gara”

“Eskoriatza nahiko herri ‘epela’ dela uste dut”

“Ez dugu Donostiako danborrada kopiatu gura”

osoa etxetik kanpora egoteko moduko ekitaldiak ditugu aurten.

Jaiak antolatzeko zailtasunik izaten duzue?

Orain arte, behintzat, batzordean proposatutako guztia aurrera joan da, eta alde horretatik ez dugu arazorik izaten. Hala ere, esan gura dut niretako Eskoria-

tza nahiko herri epela dela. Nor bere gauzeekin bakarrik arduratzen da, eta herrigintzari ez diogu garrantzirik ematen. Horrez gainera, ez gara gauza izaten herrian ditugun gauzak estimatzen; esate baterako, Udal Banda. Horregatik, herritarrei eskatu gura diet jaietan, behintzat, ondo pasatuaz bat antolatutako ekitaldiatan parte hartzeko.

Danborrada antolatzeko zailtasunik egon izan dira. Hala ere, azkenaldian martxa ona hartu dute batailoiek?

Bai. Amuska emakume taldeak bultzada ona eman dio nagusien danborradari. Aurten, gainera, nortasun propioa eman gura diogu nagusien danborradari, eta horretarako, Eduardo Gorosarri musikari eskoriatzarrak egindako pieza bat joko dugu. Ez dugu Donostiako danborrada kopiatu gura.

Zuk zelan bizi dituzu San Pedro jaiak?

Goiz eta gau ondo aprobetxatuaz. Munduko jai onenak dira San Pedroak!

Domeka, 29

09:00 Herriko txistulariekin KALEJIRA.

11:40 ELIZBIRA.

11:55 Txistulariekin batera Udal Korporazioa San Pedro elizara joango da.

12:00 San Pedro elizan MEZA NAGUSIA.

Parrokiako abesbatzak Perosiren “I. Pontifical” eta Eslavaren “Tu est Petrus” lau ahots mistotan abestuko ditu.

13:15 MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA herriko plazan.

18:00 PILOTA PARTIDUAK pilotalekuan:

Chafee-Auxkin // Del Rey-Arroyo II

TITIN III-ZEZEAGA //

XALA-ELKORO

Salneurriak: Kantxan 18 euro eta harmailetan 12 euro. Takila ordu bete lehenago zabalduko da.

18:00 Umeendako ikuskizuna; POTXIN ETA PATXIN PAILAZOAK Gorosarri plazan.

19:30 ‘ELVIS JOAN HADI’ kale antzerkia.

23:00 ‘ITURRIAN ZER DAGO?’ Gorosarri plazan. Dantza, trikitixa eta bertsolariak uztartzen dituen ikuskizuna.

24:00 JOSELU ANAIK taldea plazan.




Aranburuzabala 22 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20

## PRESOTERAPIA

- Hobetu ezazu zure hanka nekatuen egoera.
- Odol-zirkulazioa eta linfa-zirkulazioa hobetzeko.
- Gorputzerako tratamenduen osagarria da.

EGIZU PROBA!

Ondo pasatu San Pedroak!



# Larmanta

Lentzeria eta umeen moda

Gaztainadui 21. Tel.: 943 71 53 87

Ondo pasau San Pedruek!



ELKARRIZKETA ANJEL ALKAIN AKTOREA

# “Umoretsu etorri *Kutxidazu* ikustera, *ikeeeaaarrii* gustatuko zaizue-eta”

AINTZANE GARDOKI


Hiru hilabete pasatu dira Goringo taldeak *Kutxidazu bidea* Ixabel estreinatu zuenetik. Anjel Alkain aktorearekin horren guztiorren gainean egin dugu berba.

**Z**er du *Kutxidazu bidea* Ixabel antzezlanak horren arrakasta handia izateko?

Hiru arrazoi daude, nire iritziz: batetik, kontatzen den istorioa bera da barre-garria eta guk geuk, aktoreek ere, ikaragarri ondo pasatzen dugu; bestetik, euskaraz pentsatu, zuzendu eta ekoiztutako lana da; eta, azkenik, ikuslea oso hurbileko sentitzen da.

Ez da oso ohikoa euskaldunok antzezlan bati horrela erantzutea, ezta?

Nire iritziz, erantzun hori ematea normala da; izan ere, lan hori komedia da, hau da, barre egiteko pentsatuta dago, eta gainera, hiri eta baserri mun-



duen parodia egiten duenez, publiko zabalagoarengana heltzen da.

Marka guztiak hautsi dituzue.

Ez genuen erdia ere espero. Hiru hilabeteotan 15.000 lagunek ikusi dute.

Garai baten *Ama begira zazu* lanarekin gertatutako

“Hiru hilabeteotan 15.000 lagunek ikusi dute lana”

“Aspaldian ari gara umorea euskaraz egiten”

“Taxilariarena ere askotan egin dut Eskoriatzan”

fenomeno bera gertatzen ari da gure lanarekin.

Azkenean ere heldu da euskaldunok umoreaz euskaraz gozatzeke ordua?

Aspaldian ari gara umorea euskaraz egiten, baina gure kasuan, normalean antzerkira joaten ez den jendea erakartzen ari gara

eta antzerkia programatzen ez den lekuetara ere heltzen ari gara.

Eskoriatzan plazan jardungo duzue. Garrantzitsua da antzerkia kale-atera ateratzea?

*Kutxidazu*-rekin pilotaleku eta antzokietatik kanpo aterako garen lehen aldian izango da. Umeendako kale antzerkia egindakoak gara Eskoriatzan. Orain, berriz, helduendako lan batekin gatoz; aita-ama, seme-alaba, aiton-amoneta txakurrarendako ere egindako lan batekin gatoz.

Ezagutzen duzu Eskoriatza?

Ezagutuko ez dut, ba! Makina bat errezo egindakoa naiz Aitzorrotzeko ermitan, eta taxilariarena ere askotan egin dut inguru horretan.

Zer esango zenieke eskoriatzarrei?

San Pedro jaiak ondo ondo pasa dezatela, eta astelehen gauean eskoriatzar guztien zain egongo garela Herriko Plazan. *Kutxidazu bidea* Ixabel ikustera umoretsu etortzeko. *Ikeeeaaarrii* gustatuko zaizue!

Astelehena, 30

12:00 Herriko HILDAKOEN ALDEKO MEZA.

12:30 TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX Gorosarri plazan (eguraldi txarra egiten badu, frontoian izango da).

16.30 XII. MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

Izenematea: ordu erdi lehenago.

Prezioa: 12 euro bikoteko. Sariak:

1.- Jasotako diruaren %50, trofeoak eta txapelak.

2.- Jasotako diruaren %25 eta trofeoak.

3.- Jasotako diruaren %15 eta trofeoak.

4.- Jasotako diruaren %10.

18:30 UMEEN DANBORRADA. Gorosarri plazan bukatuko da.

20:30-21:30 LISKER taldearekin dantzaldia plazan.

23:00 Gorosarri plazan 'KUTXIDAZU BIDEA IXABEL' antzerkia.

24:00 LISKER taldearekin dantzaldiak segituko du Herriko Plazan.

**Hemen**  
GARBIKETAK

Garbiketetan  
profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora San Pedroak!

Zorionak  
eskoriatzar  
guztioi!



**ALTO DEBA**  
**MARGOAK**

Dekorazio pintura • Pintura industrialak • Fatxadak

Telefonoa 943 71 41 82 / 639 37 45 25 Faxe 943 71 41 82

**EUSKAL JAIA**

GOIZEAN HASI ETA GORPUTZAK EUTSI ARTE EUSKAL GIROAZ GOZATZEKO AUKERA

# Jaietako azken eguna euskal giroan

## Orain dela bost urte Euskal Jaiak txanda hartu zion ordura arte egiten zen Koadrilen Egunari

AINTZANE GARDOKI

**Historia laburra baina bizia du Euskal Jaiak Eskoriatzan. Koadrilen Egunak Euskal Jaiari eman zion txanda. Herriko talde gehienek hartzen dute parte.**

**A**urreko urteotan moduan, txistularien kalejirarekin hasiko dute eskoriatzarrek San Pedro jaietako azkeneko eguna. Base-rritar jantzita irtengo dira herritar asko, eta euskal giroa izango da nagusi herriko kaleetan.

“Orain dela bost urte jaiak astegunean izan ziren. Jai programatik kanpo Gazte Asanbladak Euskal Jaia egin zuen. Arrakasta handia izan zuen, eta hurrengo urtean Jai batzordeko mahaian jaietako hirugarren egunean Euskal Jaia egitea erabaki genuen”, esan digu Arantxa Untzue- ta kultura teknikariak.

Antolatzaileak pozik daude Euskal Jaiari herritarrek egin dioten harrerarekin. Ekitaldi ugari izango dira goizean hasi eta gauak ondo jo arte: “Jaietako egitarauari begiratuta, ume, gazte eta edadetuen- dako ekitaldiak antolatu ditugu, baina Euskal Jaian



Talo ederra jan, sagardo freskoa edan eta gura beste dantza egiteko aukera izango da martitzenean.

era eta adin guztietako herritarrak batzen dira eguna elkarrekin pasatzeko, eta horrek giro berezia sortzen du eta, era berean, jaia abe-

rastu egiten du. Jai egitarauko ekitaldi gehienak ikusteko dira, baina Euskal Jaia parte hartzeko da. Herritarrek herritarrenda-

ko egindako jaia dela esango nuke”, gaineratu du Arantxa Untzuetak. Herriko elkarte eta talde gehienek hartuko dute parte jaia antolatzeko lanetan.

Aurten Zubiateko labea erakusketa egongo da ikusgai plazan. Izan ere, Zubiateko buztin labe zaharra Euskal Herriko ondare izendatu dute. Bertako ontziak egongo dira ikusgai.

**“Adin guztietako herritarrak batzen dira eguna elkarrekin pasatzeko, eta horrek aberastu egiten du jaia”**

### Martitzena, 1 Euskal Jaia

**09:00** Herriko TXISTULARIEKIN KALEJIRA.

**12:00** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELAK Herriko Plazan. Jai giroa alaitzen Akelarre txarangarekin ibiliko da.

**12:00** Umeendako BASERRIKO JOLAS ETA JOKOAK Gorosarri plazan.

**12:00** ‘ZUBIETAKO LABEA’ erakusketa Herriko Plazan.

**13:00** Kalejira buruhandiek eta txarangarekin.

**13:00** HERRI KIROLA. Iparraldeko jokoak Herriko Plazan. Giroa alaitzeko IZER eta ALABIER trikitaliak.


**14:30** HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan. Trikitaliekin erromeria.

**18:00** Txarangarekin kalejira.

**19.30** Euskal preso eta errefuxiatuen eskubideen aldeko kalejira txarangarekin.

**22.00** TAPIA ETA LETURIA bikotearekin dantzaldia Herriko Plazan.

**24:00** JAI BUKAERAKO TRAKA.



ILE APAINDÉGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK  
Aranburuzabala 30 ESKORATZA 943 71 30 31

Gozatu eta ondo pasatu GURE herriko JAIXAK!



Santa Ana 23  
Tel. 943 71 53 82  
ESKORATZA

Arana 5  
Tel. 943 71 45 78  
ESKORATZA



San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu denoi!

LEINTZ GATZAGA GARAI BATEKO GATZAGARREK ARABARA JOATEKO JOERA HANDIAGOA ZUTEN

## ERRETRATUZAHARRA

Gatzagako  
alaba San  
Pedro jaietan

**O**ndoko erretratuia 1956ko uztailearen 1ean Eskoriatzako Bolibar tabernaren aurreko aldean ateratakoa da. Mari Carmen Arana gatzagarra 11 urte zituela joan zen neskame Eskoriatzako Elorreta baserrira. Etxeko lanez gain, atez ate esnea saltzen zuen kalean. Bost urte egin zituen Elorretan. Orduan, oraindik umea zela-eta, ez zuen San Pedro jaietan ibiltzerik izan. Gero, berriz, 16 urterekin herriko okindegian hasi zen lanean. "Orduan ere jaietan ibiltzeko denbora laburra izaten nuen, inoiz baino lan handiagoa izaten genuen-eta dendan; eta dendako lana amaituta, etxea gonbidatuz gainezka egoten zen", esan digu Mari Carmenek. Dena dela, eta dantzari bikaina izanik, lana bukatu eta gero plazara joan eta dantzan egiteko aprobeztatzen zuen.

Garai hartako gatzagar askok, aldiz, bizikletak hartu eta Arabako jaietara joateko joera handiagoa ei zuten. "Eskoriatzara joateko gorbata behar zen. Eskoriatzan jendea elegante jantzita ibiltzen zen. Gu bizikletak hartu eta Hermuara (Araba) joaten



ginen San Pedro jaietara. Makinatxo bat kilometro egindakoak gara gu Araba aldean bizikletan. Arabarrek, gainera, ez gintuzten begi onekin ikusten; izan ere, gu dantzari trebeak ginen, eta hango neskak gurago izaten zuten gurekin dantzan egin", azaldu digu, erdi txantxetan erdi serio, Benedikto Elkorobarrutiak. "Gero,

60ko hamarkadaren erdi inguruan, motoak eta autoak etorri zirenean, herriko gazteak Eskoriatzara sarriago joaten hasi ziren". Mari Carmenen iritziz, berriz, San Pedro jaietan ez zen Gatzagan besteko jai girorik egoten: "Beharbada hemengoa naizelako, baina jaiak diferenteak ziren. Oso ondo pasatzen nuen, baina Gatzagako jaiak

gurago izan ditut beti".

Argazkian ageri direnak, ezkerretik hasita, honakoak dira: Eli Uribetxebarria, Vitoriano Burgalesa, ezezaguna, Milagros Uribetxebarria, Mari Carmen Arana, Juli eta Mari Carmen Villar.

Argazkia: Mari Carmen Arana



**leniz sa**  
fundizioak

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA  
www.fundiciones-leniz.com

Jai zoriontsu eta alaiak  
izan ditzazuela!

**URRESTILLA**  
**TABERNA**

Hidalga 2, ESKORIATZA. 943 71 48 09.

Gure etxera datorrena, bere etxean dago.



## Maulanda *merenderoa*



### MAULANDA MERENDEROA

Maulanda Auzoa, 20540 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Ondo pasa  
San Pedroak!



**Jairik zoriontsuenak  
opa dizkizue Lenizek!  
Ondo ibili!**



KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

Bigarren eskuko autoen salerosketa,  
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru Ibiltokia 31 • ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 50 61 / Faxe: 943 71 31 45  
Posta-e: rleniz@euskalnet.net



**SAN PEDROAK 2003**

**Hau berua, hau girua...  
Jaixetan edozertarako gogua!**



eskoriatza  
udala